

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1435

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 22koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, nekazaritza-egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren babesean, kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko 2012an emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda jendaurrean jartzeko dena.

Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako sektorean lehiakortasuna areagotzeko eta nekazaritza eta ingurumeneko neurriak hartzeko laguntzen esparru-arautegia ezartzea, irailaren 20ko 1698/2005/EE Erregelamenduan xedatutakoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Programarekin bat etorriz.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez, laguntza horien 2012ko deialdia egin zen.

Dekretu horrek ematen dion eskumena erabiliz, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak aipatutako xedapenaren babesean eskatutako diru-laguntzak ematea ebatzi zuen.

Ebazpenak onuradunei jakinarazi ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira diru-laguntzen eta onuradunen zerrendak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateratua onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluko 2. ataleko bigarren paragrafoan xedatutakoa betetzeko.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren babesean, kudeaketa-, ordezkapen-eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko 2012an emandako laguntzen onuradunen zerrenda jendaurrean jartzea, guztiek ezagut dezaten. Ebazpen honen eranskinean dator zerrenda hori.

Bigarrena.— Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtoa jar diezaioke Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 22a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

ERANSKINA

NEKAZARITZARAKO EGITURAZKO ETA INGURUMENEN LAGUNTZEI BURUZKO UZTAILAREN 8KO
133/2008 DEKRETUAREN BABESEAN, KUDEAKETA, ORDEZKAPEN ETA AHOLKULARITZA-ZERBITZUAK
EZARTZEKO 2012. URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK (EUROTAN)

Onuradunak	Fondo propioak	LGNES fondoak	Guztira
Abelur, S. Coop.	15.857,14	8.919,64	24.776,78
A.G.A., S. Coop.	13.614,29	7.658,04	21.272,33
Basoekin, S.L.	5.508,10	3.098,31	8.606,41
Lorra, S. Coop.	20.088,01	11.299,50	31.387,51